

Gizarte Babesaren Gastua, per capita, 7.940 euro; %1,9 gehitu zen Euskal AEn 2016an

2016an gastua goraka funtzio guztietan, langabeziagatiko prestazioetan izan ezik, non beheraka jarraitzen duen

Euskal AEn gizarte-babesaren gastua %1,9 gehitu zen, bai absolutuki, bai per capita. Datuok Eustatek landuak dira, SEEPROS sistemari jarraituz, Gizarte Babesaren Estatistika Integratuen Europar Sistemari. 2015eko pertsonako 7.795 eurotik 2016ko 7.940ra handitu; guztira, 17.260 milioi. BPGrekiko, gastu hau %24,4 izan zen 2016an, 2015ean baino hiru hamarren gutxiago.

Administrazio-gastuak kendutako gizarte-prestazioen balioa: 16.971,7 milioi 2016an, 2015ean baino %2,0 gehiago.


1. taula: Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2010-2016(A)

	2010	2015	2016(A)	2016(A)/2015 (%)
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA				
Milioi eurotan	15.971	16.934	17.260	1,9
Merkatu prezioko BPGaren %an	24,0	24,7	24,4	-0,3*
Biztanleko eurotan	7.355	7.795	7.940	1,9
Biztanleko EAP	7.451	8.519	:	:
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE-PRESTAZIOETAKO GASTUA (milioi eurotan)				
GUZTIRA	15.654	16.647	16.972	2,0
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	4.443	4.317	4.436	2,8
Baliaezintasuna	1.052	1.170	1.200	2,6
Zahartasuna	6.004	7.096	7.374	3,9
Umezurtz-alargunak	1.473	1.668	1.696	1,7
Familia eta seme-alabak	475	496	499	0,4
Langabezia	1.681	1.241	1.085	-12,6
Etxebizitzak	118	136	150	10,0
Gizarte-bazterkeria	408	522	532	1,8
ADIERAZLEAK (eurotan)				
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko	7.209	7.662	7.807	1,9
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko eta EAPn	7.303	8.374	:	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" gastua, biztanleko	2.046	1.987	2.041	2,7
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	14.304	15.366	15.742	2,4
"Langabeziaren" gastua, erregistratuta dagoen langabetuko	12.693	7.747	7.431	-4,1
BPG KSE2010. 2015 oinarri (milioi euro)	66.569,4	68.496,6	70.857,3	3,4
Biztanleria (01-07)	2.171.536	2.172.548	2.173.853	0,06

(*) aldea ehuneko puntuetan

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

1. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2015



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

2015ekoak dira azken behin betiko datuak; Zahartzaroa eta Gaixotasunak/Osasun Arreta funtzioetan gastatzen da prestazioetako %68,5.

“Zahartzaroa” funtzioa, zeinak barne dituen pentsioak, ostatua eta etxeko artatzea, gasturik handiena: 7.095,6 milioi 2015ean. Gaixotasunak/Osasun Arreta funtzioaren gastua, bigarrena bolumenean, 4.316,9 milioi 2015ean; aurreko urtean baino %3,2 gehiago.

2015ean, pisurik txikieneko funtzioak, Gizarte-bazterketa eta Etxebizitza, prestazioen %3,9; Familia/seme-alabak, %3,0.

2015ean gastua goraka funtzio guztietan Etxebizitza eta Langabezian izan ezik; 2016an gastua goraka funtzio guztietan, langabeziagatiko prestazioetan izan ezik, non beheraka jarraitzen duen. Langabezia funtzioaren gastua —langabezia prestazioak, enplegu sustatzea eta prestakuntza- beheraka azken urteetan: 2014an %-18,3; 2015ean %-18,9; 2016ko aurrerapen datuekin, %-12,6.

2015ean Langabezia gastua, gizarte-prestazioenaren %7,5; 2013an %11,4, handiena 2000tik. 2016an, aurrerapen datuek %6,4 ematen digute. Jaitsierak bi osagai ditu; lehenengoa, langabezi prestazioen jasotzaileak gutxitu (2016an %14,5; aurreko bi urteetan %17,5 eta %11,8); bigarrena, langabezia gutxitu: %8,9 2016an; %6,7 2015ean; %2,1 2014an.

Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak eginiko gastua guztiaren %60,7 izan zen 2015ean, 2014an baino %0,1 gehiago.

Euskal Administrazioek eginiko gastua, 5.388,4 milioi (%31,8) 2015ean, 2014an baino %2,8 gehiago. "Euskal Administrazioak" taldearen barruan gizarte-zerbitzuen sistema publikoa da: Lanbide, Foru-aldundiak eta Tokiko Administrazioak. Gastua 1.878,6 milioi 2014an eta 2015ean 1.928,5 milioi. Euskal Administrazioen gastuaren barruan osasun sistema publikoarena dago: 3.364,5 milioi 2014an eta 3.459,9 milioi 2015ean.

2. taula: Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabera gastua (milioi €). 2010-2015


	2010	2013	2014	2015	Urteko aldakuntza-tasa %		
					2013/14	2014/13	2015/14
Gizarte Segurantzako sistema eta SEPE	9.543	10.217	10.272	10.284	3,1	0,5	0,1
Euskal administrazioak	5.130	5.147	5.243	5.388	-0,5	1,9	2,8
Erakunde pribatuak	1.297	1.405	1.250	1.261	11,2	-11,1	0,9
Gizarte babeseko gastua. Guztira	15.971	16.770	16.765	16.934	2,6	0,0	1,0

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Europarekiko alderatzea egiteko, Eurostaten azken datuak 2015ekoak dira. Adierazleetako bat Erosteke Ahalmenaren Parekotasuna da; Euskal AEn 8.519, Espainian 6.263, %36 txikiagoa. Irlandan, esaterako, 7.506; Erresuma Batuan 8.500. Goiko muturrean Luxenburgoko (15.014) eta Danimarkak (11.327).

BPGrekiko gizarte gastua: Euskal AEn %24,7, 2015ean. Europako batez bestekoa %29,0. Espainiakoa %24,7. Luxenburgoko %22,0 (aurrena per capita).

2. grafikoa. Gizarte babesaren gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean eta BPGrekiko %. 2015



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua eta Eurostat (2017/11/29)
(*) Polonia kanpo da (2015eko daturik ez)

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62